

Herriko partaidetza, aztergai

Oreki fundazioak 'Tokiko demokrazia bidegurutzean' ikerketa txostena ondu eta aurkeztu du / 2

Ospakizun berezi eta hunkigarria

30 urte bete dituela ospatu du Semblante Rociero taldeak, Valentziako Marinyen korua gonbidatuta / 7

Jose Luis Orellak
'824: Iruñeko
Erresumaren sorrera'
liburua aurkeztu die
lasarteoriatarrei / 3

Hilabetea hastearrekin
batera martxan jarri
dute Manttangorri
hiribusaren zerbitzu
berria / 4

Michelin kirol gunea
handitzea ahalbidetuko
duen hitzarmena
sinatu dute udalak
eta foru aldundiak / 5

Ane Labaka Mayozen
lasarteoriatarrak
'Murmur'
helduentzako album
ilustratua atera du / 6

Intza KEko eskuz
binakako 3. mailako
kideek Ezker
Hormako finala
jokatuko dute / 11

Villalobos herritarrek
abiadura patinajeko
1. mailarako igoera
eskuratu du Iristaka
taldearekin / 12

**BLACK
FRIDAY**

2MÓ 89€

lehen 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



Julen Cocho eta Andoni Eizagirre, aurkezpen ekitaldira bertaratutakoei azalpenak ematen. TXINTXARRI

Urrats bat, "etorkizuneko Lasarte-Oria bizia" eraikitze bidean

'Tokiko demokrazia bidegurutzeari' ikerketa txostena aurkeztu dute Oreki fundazioko kideek: "Lasarte-Oria partaidetzak bizi duen egoera hobeto ezagutzeko" tresna eta erreferente izan nahi du udalarekin eta Aldundiarekin batera ondu duten lanak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Udalerria gorputz bilakatuko bagenu, eragileak izango lirake bihotza. Eta, behin hasita, baita birrikak ere, garuna, besoak, zangoak... Auzolanean jardun, jarduten eta jardungo dutenek ekarpen nabarmena egin diote Lasarte-Oriaren bizitzari, arlo ugarietan: euskara, memoria historikoa, kultura, feminismoa, ingurumena, tokiko merkataritza... eta abar luze bat. Txanponaren aurkia da hori.

Txanponek, ordea, beste alde bat ere badute: ifrentzua. Lasarte-Oriako partaidetzaren egoerari buruz kezkatzeko arrazoiak badaude, Oreki fundazioko kide Julen Cocho eta Andoni Eizagirrek nabarmendu dutenez azken urtean biek ondu duten *Tokiko demokrazia bidegurutzeari* ikerketa txostenean: "Elkarte askok belaunaldi arteko errelebo falta

eta indibidualismoa bezalako arazo larriak daudela adierazi dute". Orain arte egindakoa asko eta oparoa izanagatik ezin dela inor erlaxatu, alegia. Zentzu horretan, egileen xedea da proiektu hori "etorkizuneko herri bizia eraikitze urrats bat" izatea. Azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egin dute.

Gaiaren garrantziaren tamainako aurkezpen ekitaldi bat aurrera eramane dute Antonio Mercero aretoan. Udaleren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean Agustin Valdivia alkateak eta Iruñe Berasaluze Go-

GIPUZKOA ETA EUSKADIREKIN ALDERATUTA, "ZEINU LARRIAK" TOPATU DITUZTE HERRIAN

bernantza diputatuak parte hartu dute, hurrenez hurren. Ondoren, ikerketa txostenaren egileek lanaren nondik norakoak azaldu dituzte, Cochok eta Eizagirrek, hain zuzen ere. Amaitzeko, egitasmoan parte hartu duten norbanako eta eragile nahiz erakunde batzuetako ordezkariekin mahai inguru bat egin dute: Nagore Duran (Lasarte-Oriako Udaleko Parte Hartze zinegotzia), Julen Basterra (musikaria), Ketus Marcos (Danok Kide elkarte ordezkaria), Encarni Baztan (Nagusilano-eko boluntarioa) eta Mari Karmen Ormazabalek (Ttakun Kultur Elkarte lehendakaria) jardun dira. Halaber, bertaratutako herritarrek ekarpen eta galderak egin dituzte.

Valdiviak onartu du ikerketaren emaitzak "kezkarriak" direla eta erakusten dutela he-

rritarrek partaidetzarekiko duten gaitzuste "gero eta nabarmenagoa". Edonola ere, "baikor" izan nahi du: "Areto honetan elkarte garenok sinesten dugu beharrezkoa dela herritarrek inplikatzeko, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki. Elkarrekin lan egiteko gai bagara eta mezu egokiak ematen baditugu, Lasarte-Oria parte hartzaileago bat lortuko dugu".

Berasaluzek hartu du hitza gero, lehenik eta behin, ikerketaren egileak zoriontzeko: Benetan interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zait egin duzuen; txalotzekoa". Halakoa iruditzen zaio *Tokiko demokrazia bidegurutzeari*, besteak beste, erakundeei eta bereziki Aldundiari "abiapuntu sendoa" ematen diolako "erabakiak hartu eta estrategiak abian jartzeko". Horien guztien oinarria "ongizate kolektiboa" dela azpimarratu du Gobernantza diputatuak: "Gipuzkoa kohesionatuago, demokratikoago eta hobetoago bat eraikitze gako da".

'Berrikuntza politikoa esploratzen' egitasmoa

Parte hartzearen higadura aztertze helburuarekin martxan jarri zuten *Berrikuntza politikoa esploratzen* ikerketa egitasmoa: batetik, udalerriko zenbait eragileekin elkarrizketa eta mahai inguru batzuk aurrera eramane zituzten, eta, bestetik, egoeraren "diagnosi zehatza" egin dute 305 herritarri inkestak eginda. Azken horren adibide gisa, datu bat: galdetuak izan diren %81,7k uste du politikariei "gutxi edo batere ez" axola zaiela herritarren iritzia. Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), aldiz, hamarretik sei pasatxok (%64 eta %67, hurrenez hurren) pentsatzen dute hori.

"Lasarte-Oriako inkestaren emaitzak Gipuzkoako eta EAEko datuekin alderatuta zeinu larriak ikusi ditugu udalerrian: partaidetza maila baxua, demokrazia-rekin asebetetze txikiagoa, politikarekiko interes eskasa, auzotarrekiko konfiantza gutxi

"HERRITAR, ELKARTE ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARRIZKETA" SUSTATU NAHI DUTE

eta politikan eragiteko gaitasun falta handiagoa", azpimarratu dute Cochok eta Eizagirrek.

Hori esanda, herriko partaidetzari buruzko buruzko orokorrak "baikorrak" izan direla adierazi dute. Hori bai, horren barruan "emaitza kezkarriak" aurkitu dituzte partaidetza motaren arabera, esaterako, generoaren alorrean: "Elkarte edo ekimenen batean parte hartzen duten emakumeen %51,5ek zaintzarekin zerikusia duten arloetan egiten du; gizonen portzentajea, aldiz, %22,2koa da". Antzera gertatzen da politikagintzarekin, izan ere, %11,1 dira gizonak, eta, emakumeak, %3.

Hiru herritar mota

Beste emaitza "adierazgarri" bat aipatu dute agerraldian: "Hiru lasarteoriatar mota identifikatu ditugu: atxikimendu falta nabarmena dutenak, konfiantza zibikoa erakusten dutenak eta asebetetze falta dutenak".

Atxikimendu falta nabarmena duten herritarren ezaugarriak dira erakunde eraginkortasunarekin "oso atsekabetuta" egotea, pertsonen arteko harremanetan konfiantza handirik ez izatea eta "batere interes politikorik ez izatea". Konfiantza zibikoa erakusten duten biztanleek, ostera, "iritzi ona" dute sistema demokratikoaren eraginkortasunarekiko, interesatzen zaizkie politika gaiak, baikoragoak dira herriaren egoerari dagokionez eta "konfiantza handiagoa" dute auzotarrekiko. Azkenik, asebetetze falta dutenek "kritikoki" baloratzen dute erakunde eraginkortasuna, eta, interes politikoa "altua" izan arren, demokraziarekiko asebetetze falta nabarmena dute".

Cochok eta Eizagirrek nabarmendu dute "desiragarria" izango litzatekeela hiru herritar multzo horien arteko oreka, "baina atsekabea eta lilura eza sentitzen dutenen kopurua handiegia dela erakutsi du ikerketak". Horri buelta emate aldera, aurkeztu duten lanak "herritar, eragile eta erakunde arteko elkarrizketa" sustatu nahi du, "konfiantza edo asebetetze faltatik ekarpenak egin ditzan bakoitzak, komunitate sendoago bat eraikitze bidean". Hori da, Oreki bi kide horien iritziz, "tokiko demokrazia indartzeko beharrezko baldintza".



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Ezetz

Udazkenak bortizki eragin ditu bazter guztiak: Valentziatik AEBetara, eta ez dezagun ahaztu Palestina. Gai heterogeneoak, baina sentimendu komunak eragiten dituztenak: etsipena, samina, ulertuezina... Nola iritsi gara honaino?

Gaur hona beste gai bat ekarri nahi izan dut, ordea. Antza, azken asteetako gaia ez dela dirudi, baina berehala ikusiko duzue baietz.

Duela egun batzuk artikulu bat irakurtzen nuen ezetzaren inguruan, alegia, zergatik egiten ote zaigun horren zaila ezezkoa ematea. Artikulua irakurri ez ezik, nire buruari ere egin diot galdera, eta bai, bereziki ezetz esan eta mugak jartzea kostatzen zaien horietakoa naiz. Are gehiago, nire buruari barne erronka ezarri diot: ezetz esaten ikatea.

Oro har, pertsona gehienei kosta egiten zaie eurez espero den horri kontra egitea, pentsatuz besteei huts egingo dietela, bakea 'puskatuko' dutela... Baina emakuei bereziki eragiten digun zerbait delakoan nago: gure generoari erantsi zaion gurutze bat da besteekin atsegina izatea, ingurukoak kontent mantentzea...

Txikitatik baietza esaten erakutsi digute, baina ezetza hura bezain garrantzitsua dela kontuan hartu gabe. Hala, tresna horiek gabe mugak jartzeko zailtasunekin topatzen gara egunerokoan: topoan albokoak hanka zabaldua izkieratzen gaituenean, baimenik eskatu gabe frontoian atzealdean jokaten hasten direnean (bai, duela gutxi gertatu zait) edo zure lankideak "nahi gabe" ipurdia ukitzen dizunean.

Spoiler asko egin gabe, *Nevenka naiz* filmean bada eszena adierazgarri bat. Ponferradako alkateak dagoeneko Nevenka Fernandezi abusuak eragin zizkiola, bidaia bat egitekoak ziren biak udaleko beste bi kideekin batera. Autoz Nevenkaren bila pasatzen da alkatea, baina barruan gizona bakarrik dago. Neska izoztuta geratzen da; ez du autora sartu nahi, baina ez da ausartzen atzera egiten. Presio izugarria sentitzen du, ez bakarrik alkatearen aldetik, baita azken honek bide bakarreko errepidean autoa geldirik duela, atzean dauden auto gidariek klaxona jotzen hasteagatik ere. Nevenkak zer egin zuela iritzi diozue?

Ez gaituzte hezi gutaz espero denarekin apurtzeko, eta jada kosta egiten bazaigu ezetz esaten, pentsa halako egoeretan. Hain zuzen, horretaz elikatzen dira putreak, horien artean, pertsona eta pertsonaia nahasten dituzten horiek bezalakoak. Bazen ala ez gaurkotasuneko gaia?

Iruñeko Erresumaren sorreraz idatzitako liburua aurkeztu die

Nabarralde fundazioak Jose Luis Orella Unzue historialaria gonbidatu du Lasarte-Oriara. '824: Iruñeko Erresumaren sorrera' liburuaren idazlea da Orella, eta lan horren aurkezpena egin die bera entzutera joandakoei. Saioa amaitu aurretik, galdera egiteko aukera izan dute entzuleek

Txintxarri

1.200 urte bete dira Iruñeko Erresumaren sorreratik eta hori gogora ekartzeko helburuarekin liburu aurkezpena aurrera eraman ditu Nabarralde fundazioak. Jose Luis Orella Unzue historialari katedradunak '824: Iruñeko Erresumaren sorrera' liburu aurkeztu du.

Orellari hitza eman aurretik, eta gaian murgiltzeko Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren esaldi bat ekarri du gogora antolatzaileetako batek: "Egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria". Eta adierazpen horiei erreferentzia eginaz, honakoa gaineratu du: "Herri honek egitura bat izan du, lurralde propio bat, estatu bat eta hor eutsi ahal izan dio bere kulturari, hizkuntzari, identitateari eta idiosinkrasiari".

Baskoiek, "izaera bipolarra"

Jose Luis Orella Unzue historialariak hartu du hitza gero, eta, esan, baskoiek "herri bat, nazio bat" izan direla, baina ez edonolako; hizkuntzari, kulturari, politikari, erlijioari eta ekonomiari dagokionez, izaera "bipolarrekoa" baizik. Nabarmendu du beti egon dela aipatu aspeltu horiei guztiei dagokienez, bikoiztasuna. Bipolaritate hori kristo aurretik I. mendetik gaur egunera arte mantentzen den ezaugarri bat dela ere gaineratu du historialariak.



Jose Luis Orella entzuleei hizketan. TXINTXARRI

Baskoien jatorrizko hizkuntzaz hitz egin du gero, eta horri erreferentzia egiteko, adibide gisa, Irulegiko eskuaren aurkikuntza aipatu du, besteak beste. "Antzinako baskoien alfabetatzea baieztatzen du, paleo hispaniko sinatzailearen aldaera batetik eratorritako sistema grafiko baten bidez. Hizkuntza baskonikoan idatzitako testurik zaharrena da, euskararen aurrekari izan den hizkuntza baskonikoan idatzia". Gaineratu du, horrek guztiak garbi uzten duela erromani-

zazioaren aurretik baskoiek existitzen zirela, eta ez hori bakarrik, baita bazutela aditzera emateko gaitasuna ere. Hizkuntzarekiko baskoiek izandako bipolaritatearen gainean emandako azalpenetan aipatu du arabierarekin elkarbizitu zela. Lingua navarrorum-az ere hitz egin du gero.

Erljioari dagokionez, berriz, esan du baskoiek euren jainko propioak izan zituztela, eta ebangelizazioarekin bihurtu zirela kristautasunera.

Politikan ere bikoiztasuna

Politikan, berriz, baskoien artean elkarrekiko antagonikoak izan diren bi taldeei buruz hitz egin du Orellak; elkarren aurkakoak izan diren bi tendentzia politikoen berri eman du: "Iruñeko Erresumaren sorreraren garaian, elkarren artean aurkariak ziren bi alderdi politiko existitu ziren: arabeen aldekoa zen bat, eta frankoen aldekoa bestea. Orreagako guduan bi horien arteko borroka eman zen". Agramondarrak eta Beaumontarrak ere izan ditu ahotan gero.

Luze eta zabal hitz egin du gaiaz. Hitzaldiaren azken zatian, gaiari erreferentzia eginez, estatu izateko lurraldetasuna izatearen garrantziaz mintzatu zaie bertaratu direnei.

Saioa amaitu aurretik, bertaratu direnek galderak edo iruzkinak egiteko aukera izan dute.

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

ESKATU TARIFAK

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaituzte gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

Continental
The Future in Motion

A2car

Zumaburu, 18 Lasarte-Oria Tel: 943-36 24 63

**Ekipatu zure kotxea Continental gorpulekin eta
ERREGAIA edo KARGA ELEKTRIKOA
BONUA eskura dezakezu (80€ arteko)
azaroaren 4tik abenduaren 18ra**



Bidaia batzuk, Manttangorri hiribusera igotzen, Bekokalen. TXINTXARRI

Manttangorriren zerbitzu berria martxan dago

Lanegunetako ordutegia jarraitua da eta geldialdi gehiago izango ditu, San Frantzisko eta Zatarain auzoetara iritsita. Larunbatetan berbera izango da ibilbidea eta ordu tarte, 15:00etatik 17:00etara artean izan ezik

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak zazpi urterako kontratu bat adjudikatu dio Transitia SL enpresari, Manttangorri hiribuseraren zerbitzua eman dezan. 262.000 euro ordainduko ditu erakundeak urtero eta ordezkariak nabarmendu dutenez "hobekuntza" ugari izango ditu, besteak beste, astegunetako ordutegia zabaltea eta behealdeko auzoak goialdeko guztiakin lotzea. Hilabete hasieran ekin zioten ibilbide eta ordu tarte berriari.

Lanegunetako ordutegia 08:20etik 20:55era artekoa izango da, jarraitua. Eskola egunak direnetan, goizago beste ibilbide bat egingo du Manttangorri, 07:40etik 08:06ra, Antxisun hasi

BEHEALDEKO AUZOAK GOIALDEKOEKIN LOTZEN DITU MANTTANGORRIREN IBILBIDE BERRIAK

eta bukatuko dena. Orotara 34 geldialdi egiten ari da Manttangorri hiribusa hilabete hasieratik: berrikuntza nabarmena da San Frantzisko eta Zatarain auzoetara ere heltzen dela, "beheko auzoak goikoekin lotzeko", udal ordezkariak gogorarazi dutenez.

Larunbatetan, berriz, 15:00etatik 17:00etara arteko tartean

hiribusak ez ditu herriko kaleak zeharkatuko. Gainerakoan, lanegunetako berbera izango da ordutegia eta geldialdi berberak egingo ditu, Antxisu bailaran hasi eta bukatuta.

Datozen hilabeteetan ibilgailu elektriko batengatik ordezkatu dute gaur egun zerbitzua ematen ari den hiribusa, udal ordezkariak jakinarazi dutenez.

Eskola egunak				
Antxisu	Olatxoaldea	Instituitua	Antxisu	
7:40	7:47	7:50	8:06	
Lanegunak				
Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55



Hiribusa



Valentziako denboraleak kaltetuei laguntzen ari dira

Boluntario lanetan aritu da Gurutz Iturbe herritarra. Horrez gain, produktu bilketak aurrera eraman dituzte herritarrek

Txintxarri

Aste eta erdi igaro da tanta hotzak Valentzian hondamendia eragin zutenetik, eta denboraleak kaltetutakoei elkartasuna adierazten ari dira hainbat eta hainbat euskal herritar, horien artean, lasarteoriatarrek.

Alde batetik, Valentziako Masanasa izeneko herrian boluntario gisa aritu da Gurutz Iturbe herritarra. Suhiltzailea da ogibidez, eta lankide batzuekin batera, lau egunetako egonaldia egin du bertan. Kontatu du gehienbat garbiketa lanetan aritzea egokitu zaiola: "Urez betetako garajeak husten aritu gara, eta bertan harrapatuta geratu ziren ibilgailuetan gorpurik ba ote zegoen ala ez ziurtatzen ere bai". "Hondamendi eta txikizio izugarria" topatu dituela ere nabaerandu dio

TXINTXARRI aldizkariari. Etenik gabeko lau eguneko lan txandaren ostean etxean da jada.

Bestalde, zenbait kale eta plazaetan produktuak biltzen ari dira Valentziako herrietara eramateko. Hala egin zuten hilaren 4an eta 5ean, adibidez, Arranbide kalean, Donostiako Reale Arenako bilketa eramateko gero. Atzo (hilak 7) eta gaur, berriz, gazte lasarteoriatar batzuk probintzia horretan lanean ari direnentzako materiala jasotzen ari dira, honako hau lehenetsita: botak, maskarak, babes betaurrekoak, eskularruak (kirurgikoak edo ebakiduren aurkakoak) eta buzoak edota lanerako petoak. Gaurko ordutegia 18:00etatik 21:00etara artekoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Gurutze Gorriaren izenean iruzurrak

Gurutze Gorriaren kamiseta edota txalekoak soinean jantzi eta etxetik dirua eskatzen ari omen dira pertsona batzuk azkenaldian herrian, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez. Halako eskaerarik jasotzen duten herritarrei eskatu diete dirurik ez emateko, Gurutze Gorriak ez duelako hori egiten; ekarpenak eragile horren egoitza ofizialetan soilik egin behar dituzte.



TXINTXARRI

Lasartearra futbol taldeko jokalariaiek elkartzeko festa

Lasartearra elkarteak futbol talde bat izan zuen 1970etik 1982ra eta tarte horretan jokatu zutenak elkartzeko festa bat aurrera eramango dute hilaren 22an, ostiralarekin. Topaketa hori antolatzen ari direnek jakinarazi dute bazkari bat egingo dutela elkarte horrek Erribera kaleko 10. zenbakian duen lokalean, 14:00etatik aurrera.

Festa horretan parte hartu nahi duten herritarrek Patxi Larrañaga harategian izena eman beharko dute hilaren 15a baino lehen (ostirala). Bestela, 670 43 04 94 (Jose Lopez) edo 629 53 63 20 (Txema Valles) telefono zenbakietara deitu edo idatzi beharko dute.

Lasartearra elkarte gure herriko topagune historikoetako bat da. Joan den urtean bete zituen 50 urte eta bazkideek ekimen ugari aurrera eraman zituzten urtemuga ospatzeko.



Michelin kirol guneko obrak aurrera eramaten ari dira. TXINTXARRI

Michelin kirol gunea handitzea ahalbidetzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol departamentuak eta Lasarte-Oriako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Michelin kirol gunea handitzeko. Akordio horrek "komunitate osoari mesede egingo dioten kirol azpiegiturak garatzeko konpromisoa" berresten du

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol sailak eta Lasarte-Oriako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute berriki. Horrek ahalbidetuko du 2023-2025 aldirako Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planean aurreikusitako inbertsioak egitea. Hala jakinarazi

dute Kirol diputatu Goizane Alvarez eta Agustin Valdivia alkateak.

Akordio horri esker, Lasarte-Oriako Udalak 1.200.000 euroko dirulaguntza jasoko du, eta, hori, apirilaz geroztik martxan dagoen kiroldegi berria handitzeko proiektura bideratuko du.

Michelin egungo atletismo pisten gainean kokatuko da eraikin hori.

Alvarez diputatuak azpimarratu du arestian aipatu planaren helburua dela "udalerriek herritar guztientzako kirol azpiegitura irisgarriak izatea", baina ez hori bakarrik. Gaineratu du xede nagusia ere badela "gorputz eta kirol



Alvarez eta Valdivia hitzarmena sinatzen. Eskuinean, Pildain Kirol zinegotzia. TXINTXARRI

jarduera herritarren egunerokoan txertatzea, bizi ohitura osasungarriak bultzatzea, izan maila fisikoan, zein psikologikoan". Horretaz guztiaz gain, nabarmendu du giza harremanak sustatzeko modua ere badela, "elementu integratzaile eta bizikidetzako osagai gisa".

Agustin Valdivia alkateak, berriz, poza eta eskertza agertu dizkio Alvarezzi; "Bereziki esker nahi dut erakundeen arteko lana eta udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol departamentuarekin batera egindako ahalegina. Diru laguntza ematea bultzada handia da". Gaineratu du, kiroldegi berria herriarentzat "aurre-rapauso garrantzitsua" dela.

Ekipamendu berriak

Instalazio berria Lasarte-Oriako 7.600 erabiltzaile potentzialentzat "erakargarri" izatea nahi dute erakundeetako ordezkariak, baita mugakide diren eremuetan bizi direnentzat ere, hala nola, Usurbil, Galarreta, Hernani, Zubieta,

Añorga, Ibaeta eta Igeldoko bizilagunentzat.

Lau espazio ezberdinetako fitness gela bat izango du kirol ekipamendu berriak: areto funtzional bat, eta kardioa, indarra eta pisu librea landu ahal izateko beste hiru. Horrez gain, igerileku estalita (adin guztiei zuzendutako ikastaroen eskaintza izango du) ere izango du, eta baita padelean jokatzeko eremu bat ere. Intentsitate ezberdinetako talde jarduerarako (yoga, pilates, gap, eta abarretarako) erreserbatutako espazio bat ere izango du, eta baita indoor ziklorakoa ere.

Diru laguntza, bi fasetan

Agustin Valdivia alkateak jakinarazi du foru aldundiak ekarpena bi fasetan egingo duela. Lehen ordainketa 600.000 (kopuru osoaren %50) eurokoa izango da; obra ziuertagiriak eta fakturak aurkeztean gauzatuko da. Gainerakoa, berriz, beste 600.000 euroak, jar-duera amaitzean jasoko du udalak.

Aterpeako saltokietako bezeroentzat, sari ederrak

'Gozatu' kanpainan parte hartu duten bezeroetako sei 200 euroko erosketa txartel bana poltsikoratu dute

Txintxarri

Gozatu kanpainako sariak banatu ditu Aterpea merkatariaren elkartek Bideo Lagunak saltokiaren atarian, Lasarte-Oriako Udalarekin batera. 200 euroko sei erosketa txartel zozkatu dituzte antolatzaileek eta pozarren jaso dituzte horiek irabazi dituzten bezeroek.

Tokiko dendetan erosketak egiten dituzten herritarren

fideltasuna aitortu eta saritzea da *Gozatu* kanpainaren helburu nabarmenena. Aterpeko kideek jakinarazi dutenez hirugarren aldia aurrera eramane dute aurten eta 70 saltokik parte hartu dute. Egitasmoa urriaren 14tik 26ra gauzatu zuten eta 9.300 txartel banatu zituzten parte hartu duten komertzioetan. Horieta zentzuzko sari zuzena zuten, ekime-



Bideo Lagunak saltokian banatu dituzte sariak. TXINTXARRI

nera atxiki diren hamar ostalaritza establezimenduetan bi pintxo kontsumitzeko aukera,

alegia. Aterpeko nahiz udalako ordezkarien eskutik jaso dituzte erosketa txartelen (200

eurokoa bakoitzak) gutunak eta amaitzeko talde argazkia atera dute Bideo Lagunak atarian.

200 euroko sei erosketa txartelen irabazleak

- Maximo Lucio
- Tito Cordero
- Lenin Lopez
- Emma Delgado
- Leire Rodriguez
- Jose Luis Perales



Ane Labaka Mayoz eta Raquel Samitier Castillon, 'Murmur' helduentzako album ilustratua aurkezten. EREIN ARGITALETXEA

Memoriak gordetakoak urpetik ateratzeko

Ane Labaka Mayoz herritarrak 'Murmur' album ilustratua argitaratu berri du Raquel Samitier Castillon ilustratzailearekin batera, Erein argitaletxearekin. "Memoria ariketa sentitu bat" da, ama baten isiltasunaz eta alaba baten esanezinez osatua

Txintxarri

"Esaten ez direnek esaten direnek beste garrantzia dute narrazio honetan. Albiste izan zen gertae- eta egoera gogor bat abiapuntu hartuta, Ane Labaka Mayoz sakon murgildu da narrazioan eta gai asko azaleratu ditu, besteak beste emakumea zein ezkutatuan geratzen den ia beti edonon eta edozertan, sarritan partaide aktibo izan arren". Hori da Erein argitaletzeko kideek *Murmur* helduentzako album ilustratuari buruz egin duten sinopsia. Idazle lasarteoriatarrek argitaratu berri du lan hori, Raquel Samitier Castillon ilustratzailearekin elkarlanean. Donostian aurkeztu dute. "Memoria ariketa sentitu bat" dela nabarmendu dute, ama baten isiltasunaz eta alaba baten esanezinez osatua. Itoizko urtegia eraikitzearen aurkako borroka konkretutik abiatuta gai gehiagori buruz idatzi du herritarrak, narrazioa eta poesia nahastuta.

Aurkezpen ekitaldian egileek azpimarratu zuten "maitasun

handiz" ondu dutela *Murmur*. Testua eta irudiaren arteko elkarriketa osatu dute eta karaktere kopuruari begira "nahiko laburra" izan arren, sakontasuna baduela, hitzei eta ilustrazioei "geruza ugari" jarri baitizkiete biek ala biek. "Marmarra, murmurioa, xuxurla" esan nahi du izenburuak eta narrazioan zehar uraren soinuari erreferentzia egiten dio. Horri lotuta, herritarrak "lur azpiko erreka batekin" parekatu zuten bere sortzeko modua.

Aipatu lan hori XVIII. Peru Abarka lehiaketara aurkeztu zuten Labakak eta narrazio onenaren saria irabazi zuten. Ilustratzaile irabazlea, berriz, Samitier izan zen. Markina-Xemeingo Udalean jaso zuten biek saria urriaren 24an. Antolatzaileek jakinarazi dute hamasei lan aurkeztu zituztela sariketa horretara eta *Murmur* izan zela irabazlea, epaimahaikideek (Leire Bilbao, Ainhoa Aldazabal eta Mari Eli Ituarte) aho batez aurkeztu.

Txapelketako finalerdietara

Literaturan ez ezik bertsolaritzan ere urratsak egiten jarraitzen du Ane Labaka Mayozek. Berriki jakin du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken-aurreko fasera sailkatu dela, finalerdietara alegia.

Hilaren 17an ariko da lasarteoraitarra, Oiartzungo Elorsoro kiroldegian, 17:00etatik aurrera. Beste bost bertsolari hauekin batera ariko da koplaka: Asier Azpiroz Iztueta, Beñat Gaztelumendi Arandia, Eli Pagola Apezetxea, Nerea Elustondo Plazaola eta Oier Etxeberria Zubimendi. Irabazlea zuzenean sailkatuko da abenduaren 14ko final handira.



LURHATS TALDEA

'Amets Senti', bideoklipean

Lurhats taldeak *Sendagai* diskoko *Amets Senti* kantuaren bideoklip ofiziala kaleratu berri du, honakoa lau haizetara zabaltzeko: "Izarren hautsa bezala argi amaigabea gara, bizi gaitezen osotasunean amets senti batean". Julen Basterra eta Iban Nikolai musikariek martxan jarritako proiektuak aldarrikatzen du medizina dela musika.



HAZAS ETA JAGOBA

'Denbora' abestia estreinatu dute

Hazas eta Jagoba herriko bi musikari gazteek abestia ekoizten jarraitzen dute, elkarlanean. *Zenbat gau* arrakastasuaren ostean berriz elkartu eta *Denbora* abestia ekoiztu dute, June Eizmendi herritarraren ahotsa lagun eta Ozen Estudioko zuzendari Jurgi Taboadaren zuzendaritzapean. Plataforma guztietan entzun dezakete herritarrek.

Etxebizitza eskubideaz ariko dira datorren borobilean

Hilabete honetako hizketagaia etxebizitza eskubidea izango dela iragarri du Borobilean Elkartek. Horri buruzko mahai ingurua hilaren 13an izango da, asteazkenarekin, Oriarte institutuko Landaberri eraikinean, 19:00etan. Ohi bezala, jarduera irekia izango dela gogorarazi dute antolatzaileek: "Zatoz eredu desberdinak ezagutzera informatuz, hausnartuz eta akti-

batuz". Euskara ulertzen ez dutenentzat itzulpen zerbitzua emango dutela gehitu dute.

Gauzak horrela, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrietak Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioen proiektuaz ariko da; Errenteriako alkate Aizpea Otaegi, udalerrri hori eremu tentsionatu izendatzearen erabakiaz; eta Xuar Agirre gazte lasarteoraitarra, etxebizitza kolaboratiboez.

Herritarrak saiora bertaratze- ra gonbidatu dituzte antolatzaileek.



Semblante Rociero korukoak, Arantzazuko Ama parrokiako emanaldian. TXINTXARRI

Semblante Rocierok Coral Marinyen koruarekin ospatu du bere 30. urteurrena

Emozioz beteriko saioa aurrera eraman dute bi abesbatzek Arantzazuko Ama elizan. Valentziak aste honetan jasandako denboralea oso presente egon da emanaldian, bereziki, zirrara garria izan baita. Bosna kanta eskaini ditu talde bakoitzak bakarka, eta itxierako biak, elkarrekin

Maitane Aldanondo

Emanaldi berezia behar zuen hilaren lekoak, Semblante Rociero koruak bere 30. urteurrenaren ospakizunen barruan aurrera eraman baitzuen. Tamalez, beste arrazoi tristeago batek gehitu zion emozioa

saioari, talde gonbidatua (Coral Marinyen) Valentziako Tavernes de Valldigna herritik etorri baitzen. Zirrara nabari zitzaien eta malkoak behin baino gehiagotan lehortu behar izan zituzten. Hala ere, musika atsekabearen aringarri izatea

lortu zuten emanaldiko uneren batzuetan.

Lehen ilaran eserita zeuden udal ordezkariak: Agustin Valdivia alkatea, Maite Iglesias, Nagore Duran, Miguel Angel Tolosa, Asier Gorostegi eta Sandra Barkaiztegi zinegotziak.

Alkateak agurtu zituen bertaratutakoak Semblante Rocierok "andaluziar kultura bizirik mantendu" eta doan noranahi Andaluziaren zati bat eramateaz gain, "Lasarte-Oria eta Euskadiren izena" ere badaramala nabarmendu zuen. Herrian eta handik kanpo parte hartzen duten zenbait jarduera ere zerrendatu zituen eta kontzertua iraillean Valentziara egindako bisitaren trukea dela azaldu zuen.

Biktimak gogoan

Eurite eta uholdeen ondorioz bizi duten egoera zailean "emanaldi hau izan dadila biktimei omenaldia. Eta espero dezagun artearen eta ahots hauen guztien batura Valentzian behar duten animo, indar eta determinazioaren parte izan dadila". Minutu bateko isilunea egin zuten jarraian eta txalo zaparrada luze bat izan zen ondoren. Negarrari ezin izan zioten eutsi abeslarietako batzuek. Alkateak udalaren izenean taldeko Coral Marinyen presidenteari oroi-garri bat eman zion eta horrek eskerrak eman zituen. Lehen hitzekin batera emozioak gain hartu zion eta txaloekin adierazi zioten babesa eliza bete zuten herritarrek. "Erruki dizuet ez ditzazuela valentziarrak ahaztu", eta hor utzi zuen ezin zuelako jarraitu.

Hitza hartzen azkena Semblante Rocieroko zuzendari Juan Navarro izan zen. Oso hunkituta zegoen eta kosta zitzaion hastea. Pairatutako tragedia bizita, hemen egoteko "ahalegin emozional itzela" egin izana eskertu zien, kariñoa eta elkartasuna adieraztearekin batera. "Espero dezagun gurekin dauden denboran ahal bezain ondoen pasatzea", gehitu zuen.

EMANALDIKO AZKEN BI ABESTIAK BATERA KANTATU DITUZTE SEMBLANTE ROCIERO ETA MARINYEN-EK

Atera ziren Coral Marinyeneko kideak aldare aurrera. Bost kantako errepertorioa eskaini zuten, *Can't Help Falling in Love* edo *Hallelujah* ezagunak, tartean; eta azken biak valentziarrez kantatu zituzten. Horren aurretik, koruko zuzendari Fran Lledok mikroa hartu eta hitz batzuk esan zituen. Aitortu zuen ez etortzekotan egon zirela, "egoera honetan abesteak fribolitate dirudi", baina herri honekin eta Semblanterekin duten loturagatik aurrera jarraitzea erabaki zuten. Bi kanta horiek "hildakoei eta oso gaizki pasatzen ari diren kalteuei" eskaini zizkien. "Ustedut musika penak arintzeko modua dela eta hango denak gure bihotzaren daramatzagu".

Haien ondoren, herriko taldearen txanda heldu zen. Kanta alaiagoak abesteko asmoa zutela argitu zuen Navarrok hasi aurretik, baina ez zitzaien egokia iruditu, beraz, beste batzuen alde egin zuten. Beraien emanaldietan ohiko diren kantak izan ziren, taldekideek idatziak pare bat. Amaitzean, bi koruek elkarrekin abestu zuten. Lehena, Navarrok zuzendu zuen eta azkena, Lledok: Mikel Laboaren *Txoria txori*, hain zuzen ere.

Azken agurrekin batera, Semblante Andaluzeko presidente Jose Maria Melladok oroi-garri bat eman zion Coral Marinyeneko presidenteari.

'Xomorrotxoak' antzezlan, kultura agendako hurrengoa


Intsektuak hobeto ezagutzea helburu duen obra ekarriko du herrira Spasmo Teatro konpainiak

Txintxarri

Aurrera jarraitzen du hilabete honetako kultura agendak. Bihar, hilak 9, larunbatarekin, Spasmo Teatro konpainiak *Xomorrotxoak* antzezlan oholtzaratuko du Manuel Lekuona

Kultur Etxeko auditorioan, 17:00etan. Sarrerek 4 euro balio dute eta areto horretako leihtilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete lasarteoriatarrek. Haurrei zuzendutako emanaldia da.

Intsektuak hobeto ezagutzea da antzezlanaren helburu nagusia. *Xomorrotxoak*-ek "antzerki dokumental" formatua duela aurreratu dute Spasmo Teatroko kideek eta familiako kide guztientzako "keinu bidezko umorea" dela ardatza. Halaber, "erritmo bizikoa eta koloretsua" dela nabarmendu dute eta etxeko txikienei erakusten diela zeinen garrantzitsua den ingurumena zaintzea. Informazio gehiago, spasмотеатро.com atari digitalean.



'Xomorrotxoak' antzezlanaren une bat. SPASMO TEATRO



Hamaikakoa

Goiko eta beheko irudi hauek ez dira guztiz berdinak. Erreparatu ongi eta bien arteko aldeak ikusiko dituzu: hamaika dira guztira.



Bakoitzari berea

Hona hemen jostun tresna batzuk. Lotu bakoitzari bere izena.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu armiarma hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 10.



Itzala

Behoko hegazti migratzaile horiek berandu samar dabilta, ezta? Beren kide guztiak joan dira dagoeneko! Aurki ezazu beren itzal zuzena.



Hau beldurra!

Azaroa gainontzeko hilabeteak baino beldurgarriagoa da, Gau Beltza eta Halloween izaten direlako, besteak beste. Egun berezi horietako elementu hauen artetik lau bi aldiz ageri dira, eta bi, berriz, hiru aldiz. Azpimarra itzazu.



Animalia hori zein den badakizu, ezta? Sekulako puzkarrak botatzen ditu bere burua arriskuan ikusten duenean... Bere izenak T, O, E, F, M eta A letrak ditu, eta horiekin sudoku hau osatu behar duzu. Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.


E			M	
F		T	A	
		E	M	
	O		E	A
	E			O
F	A		E	

Labirintoa


Amona Miren azokara doa. Gaztainak, udareak, kuiak eta mandarinak nahi lituzke, eta hurrenkera



horretan erosiko ditu. Amona Miren dagoen leihotik hasi, eta saskiraino iritsi behar duzu, sekuentzia horri jarraituz beti. Mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.



a	n	t	z	b	i	v	f	u	n	i	t	u	r	i	r	i
d	i	s	a	k	u	n	t	b	e	t	o	e	r	e	e	o
a	t	z	o	n	o	h	n	z	u	a	k	o	r	o	h	
a	n	a	z	a	t	o	n	e	g	u	n	r	o	j	o	r
o	e	k	a	n	t	z	b	a	f	u	h	n	i	t	u	t
a	g	u	a	s	a	o	d	n	o	b	e	t	o	r	i	s
o	x	k	a	e	z	b	a	t	z	a	k	i	o	k	o	
i	a	p	a	b	u	a	s	p	a	s	r	u	h	p	i	
a	i	t	o	n	a	u	e	n	b	e	r	t	s	u	l	z



Batu hemen laukiz lauki bildu dituzun hizkiak eta esaera zahar bat agertuko zaizu.





Ezkerrean eta erdian, Ostadarreko ordezkariak. Eskubian, Aimar Sukunza, lehian. OSTADAR ATLETISMOA/G. SUKUNZA

Lasarte-Oriako ordezkariak, Nazioarteko Krosean

Aimar Sukunza Gomez, Jon Presa Herranz, Mari Carmen Olaso Espero eta Ostadar Atletismo eskolako kideek Donostiako 68. Nazioarteko Krosean parte hartu dute. Ostadar SKTko Miriam Gallego Martin hamargarren izan da alebin mailako lasterketan

Txintxarri

Donostiako 68. Nazioarteko Krosean lehiatu zen hilaren 3an, Donostiako Hipodromoan. Eguzkia lagun, haizeari aurre egin behar zioten lasterketa ezberdinetan parte hartu zuten korrikalariak.

Absolutu mailako proba nagusian, lurraldeko lasterkariez gain, mundu osoko kirolariak izan ziren

lehiatu eta Uruguaiako Santiago Catrofe Cacharron izan zen garaile. 6.900 metroko bidea egin zuten parte hartzaileek eta horien artean izan ziren Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza Gomez (23.37) eta Aloña Mendiko Jon Presa Herranz (24.15) herriarrak.

Jardunaldiari hasiera emateko kros egokitua izan zen eta ostean,

master mailako proba mistoa izan zen. Horretan egin zuen lehia Mari Carmen Olaso Espeso herriarrak; 2.600 metroko lasterketa 14.32 markarekin gaitzitu zuen.

Kroseko harrobia

Krosak etorkizuna duela ere erakutsi zuten gazte eta haurrek. Esate baterako Ostadar Atletis-



Almagro eta Eizagirre, BAT taldearekin. BIDASOA ATLETIKO TALDEA

BATEkin, Espainiako seigarren

20 urtez azpiko Espainiako Kluben arteko txapelketa lehiatu zen urriaren 26an, Madrilan. Bidasoa Atletiko Taldeak (BAT) mutilen mailako A finalean parte hartu zuen eta taldean Ostadar Atletismo saileko bi kide izan ziren, Oinatz Almagro Zaldia eta Aitor Eizagirre Garcia. BATEk seigarren postuan amaitu zuen lehia. Talde urdin-beltzeko kideek euren harritoxa jarri zuten txapelketan eta zortzigarren postuan amaitu zituzten euren lehiak. Aitor Eizagirre Garcia pisu jaurtiketa proban lehiatu zen eta lehen saiakeran egin zuen bere markarik onena lehiatu, 9,52 metrora bidali zuen. Oinatz Almagro Zaldia jauzi hirukoitzean parte hartu zuen eta 12,63 marka egin zuen hirugarren jautsian.

mo eskolako 30 gaztetxo izan ziren korrika Hipodromoan.

Krosa gorriz markatutako hitzordua da talde urdin-beltzarentzat eta urtero ordezkari ugari lehiatzen da proba horretan. Aurten infantil eta benjamin maila artean parte hartu zuten Amaia Andres eta Oscar Goi-

koetxeak entrenatutako kirolariak. Horiek mailaren arabera 600 m. eta 1.600 m. arteko bidea egin behar izan zuten. Guztien artean, Miriam Gallego Martin alebina izan zen emaitzarik onena lortu zuena, 10. postuan helmugaratu zuen, 04.43 marka egin zuen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Irauli Bosteko KK - Ostadar SKT

Larunbata. 18:15. Matigoxotegi, Donostian.

GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa

Larunbata. 18:20. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL I. MAILA

Texas Lasarte CF - Ostadar SKT

Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO J. M.

Ostadar SKT - Urola KE

Igandea. 15:10. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA

Tolosa CF B - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Usabal, Tolosan.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT - Urnieta KE B

Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.

Texas Lasarte CF B - Mundaiz SCD B

Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

Usurbil FT B - Texas Lasarte CF

Igandea. 17:45. Harane, Usurbilen.

OHOREZKO K. M.

Vasconia CD B - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Puio, Donostian.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT - Hernani (neskak)

Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

Antigua Luberri KE B - Texas Lasarte CF

Igandea. 10:30. Berio, Donostian.

Kotsikas CD D - Ostadar SKT B

Igandea. 11:45. Matigoxotegi, Donostian.

Ostadar SKT C - Hernani CD B

Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

I. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Euskalduna SD

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Ekin Oriá Futsal

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Erain Futsal - Eguzki Bod. Ayesa

Larunbata. 10:30. Tecnun, Donostian.

KADETEEN MAILA

Coinbroker Aloña - Eguzki Goxokis goxuak

Igandea. 10:00. Zubikoa kirol. Oñatin.

SASKIBALOA

J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Bera Bera Rikardo Taberna - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Manteo kirol., Donostian.

J. PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Aldapeta Maria ik.

Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA URREA

Ostadar SKT - Andraitz KE

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Ostadar SKT - Etxaniz Autoeskola ISB

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

Sarralle ISB - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Azkoiti kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - Navarro Villoslada

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR MAILA, AURRETIKO FASEA

Hernani - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian.

JUBENIL MAILA, AURRETIKO FASEA

Hernani 1 - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian.

KADETE MAILA, AURRETIKO FASEA

Ostadar SKT B - Ostadar SKT A

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ESKUZ BIN., N., 3. MAILA, FINALA

Eibar 2 - Intza KE

Ostirala. 19:00. (2. partida) Astelena, Eibarren.

ERRENDIMENDU TX., INF. 1. MAILA

Oiarpe - Intza (Jauregi)

Igandea. 10:00. (1. partida) Madalensoro pil., Oñatin.

ERRENDIMENDU TX., INF. 2. MAILA

Intza KE (Maiz) - Oiarpe

Ostirala. 18:15 (1. partida) Loidibarren pil.

Intza KE (Iparragirre) - Hernani

Ostirala. 18:15 (2. partida) Loidibarren pil.

Intza KE (Jauregi) - Lagunak

Ostirala. 18:15 (3. partida) Loidibarren pil.

Arkirun - Intza KE (Lasa)

Ostirala. 18:15. (1. partida) Beko Errota pil., Lezon.

IGERIKETA

ALEBIN LIGA

Buruntzaldea IKTKo alebinek euren ligari hasiera emango diote.

Larunbata. 16:30. Maialen Chourraut kirol.

JUDO

AMURRIOKO TXAPELKETA

LOKEko infantil eta kadete mailako judokek Amurrio hiribilduko 30. txapelketa eta talde mistoen Tagoya kopa lehiatuko dute.

Larunbata. Amurrio, Araban.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Belenos

Igandea. 10:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA, I. MAILA

Durango - Gipuzkoa Sortzen

Larunbata. 16:00. Landare, Hernanin.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Uni. Bilbao - Gipuzkoa Sortzen

Larunbata. 16:00. Rekalde, Bilbo, Bizkaian.

16 URTEZ AZPIKOA

Gaztedi B - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 12:00. Lakua, Gasteiz, Araban.

14 URTEZ AZPIKOA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Bera Bera

Larunbata. 15:30. Asti, Zarautzen.

XAKEA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Taula Xake Klubeko kideek eta Lasarte-Oriako xake jokalariek maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako jardunaldia lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.

LASTERKETAK

BEHOBIA-DONOSTIA

Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik eta patinatzailek Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko dute.

Igandea. 09:30. Behobia, Irunen.

Intzako kirolariak, etxetik kanpo bikain

Intza pilota elkarteko kideek Ezker Horma zein Errendimendu txapelketako jardunaldiak jokatu dituzte. Nagusien 3. mailako bikoteak finalerako txartela eskuratu du eta Eibar 2ren aurka jokatuko du Astelena pilotalekuan, Eibarren

Txintxarri

Intza Elkarteko 3. mailako senior bikoia Ezker Hormako Gipuzkoako txapelketako finalean da. Hilaren 2an, partida luze baten ostean, Behar Zana 1 garaitu zuten Lasarte-Oriako ordezkariak Villabonan jokatutako finalerdian. Hilaren 10ean, Intzako bikoteak txapela janzteko lehian Eibar 2 izango du aurkari.

Intzako Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilletak neurrketa "serioa eta gogorra" egin zuten. Launako berdinketaren ostean, lasarteoriatarrek aurrea hartu eta errenta txikia ireki zuten. Nahiz eta Behar Zanako Mendizabal eta Olsagati gerturatzan saiatu, ezin izan zituzten Intzako kideak gaingitu eta 20-22 amaitu zen lehia.

Intzako seniorrek dagoeneko urteko helburua lortu dute, 2. mailako igoera. Izan ere, finalera iritsi ziren bi bikoteak igoera zuzena eskuratu dute. Orain txapelketari amaiera bikaina eman



Intzako Jauregi eta Illunpeko Egigurenen arteko neurrketako irudia. TXINTXARRI

nahi diote garaikurra lortuz. Eibar 2 gaingitu beharko dute, gaur, 19:00etan Astelena pilotalekuan.

Gazteak ere lehian

Pilota eskolako gazteek ere Errendimendu txapelketako jardunaldia izan zuten azaroko lehen asteburuan eta txanpona-

ren bi aldeak bizi izan zituzten Intzako ordezkariak.

Hilaren lehenean, infantil mailako bi neurrketa ikusi ahal izan zituzten zaleek Loidibarren pilotalekuan. Etxekoek ezin izan zuten garaipena erdietsi.

Arratsaldea ireki zuten 2. mailako lehiak eta Hernaniko Her-



Iparragirre (eskuinean), neurrketa hasi baino lehen. EMAKUME MASTER CUP

Iparragirrek, ezin aurrera egin

Urriaren 27an, lau eta erdiko Master LABORAL KUTXA txapelketaren lehen kanporaketak jokatu diren Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan. Gazteen mailako eskuz banaka pilota mistoko norgehigoka izan zen jardunaldiko lehena eta horretan Intza taldeko Itxaso Iparragirre izan zen lehian. Arhane Rey donostiarraren aurka neurrketa borrokatua jokatu zuen, baina Alde Zaharrak taldeko kidea gailendu zen, 18-14.

mandezek Intzako Lasa 0-2 (2-8 eta 3-8) garaitu zuten.

Jarraian, 1. mailako neurrketa interesgarria izan zen. Ederki borrokatu arren, O. Jauregik ezin izan zuen Ilunpeko Egiguren gaingitu; 6-8 eta 7-8 irabazi zuten azpeitiarrak.

Etxetik kanpo berri onak izan ziren, ordea; Zaldibin, Astigarragan, Errenterian eta Herna-

nin aldeko emaitzak eskuratu zituzten eskolako kideek.

Alebin 1. mailan I. Jauregik 5-8 eta 1-8 irabazi zuten Gaztelupeko Eizagirre. Infantil 2. mailan, aldiz, Maizek Mundarroko Zabala 7-8 eta 0-8 gaingitu zuten; Itxaso Iparragirrek 1-8 eta 3-8ko emaitza eskuratu zuten EPLEko Arcelusen aurka eta Lopezek 3-8 eta 6-8 garaitu zuten Hernaniko Lujanbio.

Teknika eta taktika aztergai, Neguko Ligako hasieran

Buruntzaldea IKTKo igerilariak entrenamenduen fruituak erakutsi eta hamalau marka pertsonal ondu dituzte

Txintxarri

Igeriketako Neguko Liga hasi da. Buruntzaldea IKTKo absolutu, junior eta infantil mailako kideek Andoainen jokatu zuten lehen jardunaldia urriaren 26an. Sei astetako prestakuntzaren nondik norakoak ikusteko baliagarri izan zen lehiaketa

Denboraldiari hasiera emateko Andoaingo Allurralde kiroldegian bildu ziren eta Buruntzaldea IKTK hamalau ordezkari izan zituen lehen hitzordu horretan. Gehienek 100 m. tximeleta eta 100 m. libre probetan egin zuten igeri eta bakar

batzuk 50 m. bular eta 200 m. lau estiloak ere jokatu zituzten.

Entrenamendu saioen garapena aztertze baliagarri izan zitzaizen proba arduradunek azaldu moduan: "Sei asteko entrenamendua dugula kontuan hartuta, batez ere helduentzat, ez da erraza aurreko denboraldiko erritmoetan igeri egiten egotea".

Horren jakitun, denborak alde batera utzita, teknikan eta taktikan jarri zuten begirada. Hala ere, guztira hamalau marka pertsonal ondu zituzten gazteek (ikus ondoko koadroa).



Neguko Ligako lehen jardunaldian igeri egin zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Ligako bigarren hitzorduari begira, hilaren 16an, lehiaketako gabeziak zuzendu eta ondo egingoak mantentzeko lan egingo dutela azpimarratu dute taldeko prestatzaileek, baita asteak aurrera joan ahala igerilariak euren

gaitasunak hobetzen, ikaskuntzan aurrerakuntzak egiten eta markak onzen joango direla ere.

Bien bitartean, igeriketa taldeko txikiak, alebinek zehazki, ligari emango diote hasiera, hilaren 9an, Maialen Chourraut kiroldegian.

Marka pertsonalak

- Ander Martinez: 50 m. bular eta 200 m. lau estilo.
- Ibon Elola: 100 m. tximeleta.
- Mayi Gorostegui: 100 m. tximeleta.
- Itxaso Iparragirre: 100 m. tximeleta eta 100 m. libre.
- Iker Gorostegui: 100 m. tximeleta eta 100 m. libre.
- Oihan Matute: 100 m. tximeleta eta 100 m. libre.
- Alba Escribano: 100 m. tximeleta.
- Ane Meyer: 100 m. tximeleta.
- Irati Etxeberria: 100 m. tximeleta.
- Amauri Iparragirre: 100 m. tximeleta.

Villalobos eta Irristaka taldea, ligako bigarren

Azaroko lehen asteburuan, abiadura patinajeko ligako azken jardunaldia jokatu da Iruñean. 2. mailan lehiatu den Tolosako Irristaka taldea eta kide den Ximon Villalobos herritarra podiumera igo da. Bigarren postua eskuratzeaz gain, lehen mailara ere igo dira

Txintxarri

Ximon Villalobos Alvarez herritarrak abiadura patinajeko Espainiako Ligako bigarren postua eta lehen mailarako igoera eskuratu ditu Irristaka taldearekin batera. Txantreako pistan, Iruñean (Nafarroa) jokatu zen ligako azken jardunaldia. Tolosako taldeaz gain, Aragoi, Asturias, Nafarroa, Valentzia, Gaztela eta Leon eta Kataluniako taldeak izan ziren lehian eta borroka zirrargarria izan zen herritarrak azaldu modura, "urri hasieran Galizian egindako jardunaldiak sailkapen orokorra asko estutu zuen eta dena Iruñean pistan erabakiko zen".

Lau probari egin zieten aurre parte hartzaileek: 500 m. eta 1.000 m. esprint lasterketak, 5.000 metroko puntuazio proba eta 3.000 metroko amerikana erreleboa. Villalobosek azaldu modura esprint probak ez ziren aproposenak Irristakarentzat eta horietan aurkariak gailendu baziren ere, "puntuazio probako emaitza txukunarekin kontentsatzea lortu genuen".

Erreleboaren finalean, aldiz, garaile izan zen Tolosako taldea. Sailkapen orokorreko hirugarren sailkatu bezala iritsi zen Irristaka lasterketa horretara eta Valentziako Turia taldea baino bi postu aurrerago sailkatu behar zen lehen mailarako igoera eskuratzeko: "Lasterketa bizia eta pare-



Ximon Villalobos (behean, ezkerretara), ligako podiumeko taldeekin. IRRISTAKA TALDEA

katua izan zen, azken itzulian erabaki zen dena eta Aitor Vacas irristakakoa izan zen azken itzulian azkarrena, Turiakoak 5. postuan sartuz. Ikaragarria izan zen, sekulako poza".

Onenen artean

Villalobos eta Irristakako kideak pozarren dira ligako bigarren postuarekin: "Kontuan hartu beharra dugu 2023an sartu gizona Irristaka taldearekin Liga Nazionaleko hirugarren mailan, entrenatzeko baliabide oso eskasak dituen talde gazte eta motibatu gisa. Bi denboralditan Espainia mailako hamar talde onenen artean sailkatzea oso pozgarria da guretzako".

Hurrengo urtean proba bakoitzean espezialistak dituzten talderik onenekin lehiatuko direla azaldu du Villalobosek, guztiak zazpi zortzi bat patinatzailez osatuak, eta tartean hainbat munduko txapeladun. Irristakak, aldiz, Aitor Vacas gasteiztarra, Julen Urkizar tolosarra eta Ximon Villalobos bera aurkeztuko ditu: "Irristakako harrobiko patinatzaileak bide onetik badatoz ere, gaztegiak dira oraindik maila honetan lehiatzeko". Taldearen helburua, beraz, maila mantentzea izango dela aitortu du herritarrak: "Progresio polita daramagu azken urteotan eta konfiantza dugu guregan kategoria mantentzeko gai bagarela".

2. mailako Gipuzkoa Sortzenek Gaztedi garaitu du Michelin

Beltzek bigarren zatian markagailuari itzulia eman eta garaipena lortu dute. Vega herritarrak entsegu egin du

Txintxarri

Euskal Ligako Gipuzkoa Sortzen taldeak denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen Michelin kirol gunean, hilaren 2an. 2. mailako neurketa jokatu zuen Gaztediren aurka eta 25-14 gailendu zen etxeko taldea.

Neurketa borrokatua izan zen lehen zatian. Gasteiztarrek ireki zuten markagailua entsegu eta gauzatzearekin. Beltzak ez ziren atzean geratu eta bi zigor ostikorekin atsedendira 6-7koarekin iristea lortu zuten.

Bigarren zatia lehengoaren atzera hasi zen arren, gazteiztarrek aldea irekitzea lortu zuten beste entsegu eta gauzatzearekin. Etxekoak ez zuten amore eman; minutuetara entsegu bat lortuz errenta txikitu zuten.

Azken hamar minutuetan, berriz, beltzek markagailuari itzulia ematea lortu zuten. David Vega Santos herritarraren entseguak ireki zuen garaipenaren bidea. Horren ostean, entsegu eta bi gauzatzei esker neurketa irabazi zuen Gipuzkoa Sortzenek.

Denetariako emaitzak

18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTek ere aldeko emaitza eskuratu zuen Getxon (Bizkaia). Getxo B izan zuen aurrez aurre gazte taldeak eta 0-76 irabazi zuen.

Beltzak nagusi izan ziren neurketa hasieratik eta Beltzak Errugbi eskolako kide Lander Zabala Ugartemendia, Efen Real Farah, Eneko Sanchez Mar-



Vega, urriko irudi batean. TXINTXARRI

tinez eta Joanes Arroyo Illarrendik euren harritxoa jarri zuten entsegu zein gauzatzeak egin.

Euskal Ligako lehen mailako taldeak eta 16 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTek, aldiz, ezin zuten zortzerik izan Bizkaian jokaturako norgehiagoketan eta ezin izan ziztuzten aurkariak gainditu.

Lehen taldeak Durangora egin zuen bidaia eta Durango Hirumeten aurka 25-10 galdu zuten; 16 urtez azpiko taldeak, aldiz, Getxo B izan zuen aurrez aurre. Bizkaitarrak izan ziren nagusi eta 36-0 gailendu ziren.

Saleta, Uruguairen aurka

Beltzak Errugbi eskolako kide izandako Alex Saleta Atorrastagasti jokalaria, aldiz, Espainiako selekzioarekin lanean ari da Madril. Hilaren 3an batu ziren jokariak eta 9an, Uruguairen aurka jokaturako dute lehoiek.

Asier Sagasti judoka, Euskadiko txapelketan bigarren

Senior mailako Euskadiko txapelketa jokatu da Zarautzen eta LOKEko kideak lehian izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo saileko kideak senior mailako Euskadiko txapelketan lehiatu ziren hilaren 3an, Zarautzen. Lehiaketan er-

kidegoko 200 bat judoka bildu ziren eta horien artean LOKEko Asier Sagasti Conde, Ekhi de La Cruz Illarrendi eta Ulises Ortega Marcial borrokatu ziren maila ezberdinetan.



Sagasti, podiumean. EUSKAL JUDO FED.

100 kilo azpiko mailan lortu zuten emaitzarik aipagarriena; Sagastik zilarrezko domina jantzi zuen.

LOKEko kideez gain, Mario eta Oscar Garrido Diez herritarrak ere izan ziren lehian. Oscar 90 kilo baino gutxiagoko mailan bosgarren sailkatu zen.

Txapelketako lehen sailkatuek hilaren 16an, Basbastron (Huesca) lehiatuko den Espainiako txapelketako Iparraldeko sektorerako txartel zuzena eskuratu dute.

Gaztetxoak, Amurrión


Eta hilabeteetako entrenamenduen ostean, LOKEko gaztetxoek hilaren 9an izango dituzte lehen hitzorduak, Amurrión Hiribilduko 30. txapelketa eta talde mistoen Tagoya kopa.

Goizean kopako lehian neska eta mutilek osatutako infantil eta kadete taldeak lehiatuko dira. Arratsaldean, berriz, infantil mailako kirolariak bakarrik egingo dute borroka bakarrikako proban.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maite eta Manolo
Zorionak!! Zuen urtemugan egun ederra igaro izana espero dugu. Muxu handi bat zuen semearen eta TXINTXARRI-ko kideen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorianagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 8	ORUE
LARUNBATA, 9	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 10	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 11	KNIESE
ASTEARTEA, 12	LASA
ASTEAZKENA, 13	GIL
OSTEGUNA, 14	ACHA-ORBEA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA 943-37 61 79
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Igerilekua itxia

Igeriketa txapelketa dela eta, hilaren 9an, larunbarekin Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekua itxita egongo da arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.

Zatoz txistua jotzera


Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 8



Larunbata, 9




Igandea, 10



Astelehena, 11




Asteartea, 12



Asteazkena, 13



Osteguna, 14



SUDOKUA

6		1				8		
	3			1	6		9	2
9								6
	7							
	1	2				6		4
			6		8		2	5
2			3			9	6	
		4		2	7			8
	8							

Sudoku10.net

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

ESKELA

ESKELA

Fermin Gonzalez Arregui

—Goian bego—

2024ko azaroaren 5ean hil zen 101 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Lasarte-Orian, 2024ko azaroaren 8an.



ESKELAK JARTZEKO


TEL: 943-37 14 48
edo **TXINTXARRI** erredakzioan

- ▶ Eskela Txintxarri paperean: **80€**
- ▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90€**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan
943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA

Hiribusa



Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbata

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plaza dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zembakira.

EROSI
Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN EMAN
Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabilta. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu baude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

ERRENTAN HARTU
Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

LANA

ESKARIA
Babilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

DESAGERPENA
Ipar Martxako makilak ostu dizkirate. Mesedez eskuratu nahiko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

EMAN
Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA
Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zembakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Egoitz Epelde, Ander Hazas, Aimar Hernandez, Nora Navarro, Xuban Urdalleta, Nikola Iraola eta Iñigo Ibarburu.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.
Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

Tel.: 943-37 14 48 / txinxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Ekimena

Herriko gazte batzuen ekimenez, Valentziako Dana denboraleak kaltetutako pertsonen laguntzen ari direntzako produktuak bidaltzeko bilketa bat aurrera eramango dute, hala nola, maskarak, botak, babes betaurrekoak, eskularruak (kirurgikoak eta ebakiduren aurkakoak) eta buzoak edota lanerako petoak.

Okendo plaza, 18:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

Los destellos filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Xomorrotxoak antzerkia oholzaratuko du Spasmo Teatro taldeak. Sarrerak, 4 eurotan.

Antonio Mercero aretoa, 17:00etan.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Zinema

Bufalo Kids emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El club de los milagros emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Borobilean elkarteak, hil honetako saioa aurrera eramango du. Oraingoan, etxebizitza eskubidea landuko dute, eta horretarako, hiru gonbidatu izango dira hizlari: Agurtzane Solabarrieta Mesa Usurbilgo alkatea; Aizpea Otaegi Mitxelena Errenteriako alkatea, eta Xuar Agirre Amantegi gazte lasarteoriatarra. Txirikorda



LASARTE-ORIA Lehiaketa

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako literatur lehiaketetako aurtengo sariak banatuko dituzte. Ohi bezala, sarituak izango diren parte hartzaileen talentua aritortuko diete.

Azaroaren 23a, larunbatarekin, kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etan.

belaunaldien arteko etxebizitza komunitarioen proiektuaz mintzatuko da lehen. Bigarrenak, aldiz, eremu tentsionatua izendatutako herriaz hitz egingo du, eta, herritarrek, berri, etxebizitza kolaboratiboak izango ditu ahotan.

Oriarte institutua, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Balleta

Balleta gustuko dutenek, hitzordua izango dute; *Alicia en el país de las maravillas* emango dute pantailan. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Zarzuela

Zarzuela gustuko dutenek, hitzordua izango dute; *La revoltosa* saioa eskainiko du Lirica Sasibil-ek. Sarrerak, 14 eurotan.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Musika

Zero Sette Akordeoi Taldeak 21. Lasarte-Oria Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du. Sarrerak, 6 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Zinema

Rescate en Africa emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La gran escapada emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

Kultur etxea, 19:30ean.



LASARTE-ORIA Jaialdia

Jalgune elkarteak urtero gisa, jaialdia aurrera eramango du. Bertaratu nahi duten ikusleek gonbidapenak eskuratu behar dituztela iragarri dute antolatzaileek.

Azaroaren 30a, larunbatarekin, kultur etxeko auditorioa, 18:00etan.

ASTEAZKENA 20

LASARTE-ORIA Literatura

Maria Garcia Laderok istorio ederrak kontatutako dizkie 6 eta 8 urte arteko umeei. Izen ematea, udal liburutegian egin dezakete bertaratu nahi duten herritarrek.

Udal Liburutegia, 17:30ean.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Literatura

Hika antzerki taldeak *Zorretan* antzerki obra oholzaratuko du. Bertaratu nahi duten herritarrek 6 eurotan eros ditzakete sarrerak.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Literatura

Lasarte-Oriako Udalak antolatutako literatur lehiaketetako aurtengo sariak banatuko dituzte. Ohi bezala, sarituak izango diren parte hartzaileen talentua aritortuko diete.

Kultur etxea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak antolatuta, *Una bofetada no es nada*

antzezlan ikusteko aukera izango dute herritarrek. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da, 3 euroren truke.

Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Zinema

Una familia monstruosa emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La habitación de al lado emango dute, helduentzat. Sarrerak, 6 euroren truke eros ditzakete interesdunek.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Literatura

Maria Garcia Laderok istorio ederrak kontatutako dizkie 3 eta 5 urte arteko umeei. Izen ematea, udal liburutegian egin dezakete bertaratu nahi duten herritarrek.

Kultur etxea, 17:30ean.



OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Antzerkia

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak antolatuta, *Ztandap* antzezlan ikusteko aukera izango dute herritarrek. Bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa da, 3 euroren truke.

Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Antzerkia

Soy Nevenka filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Bertaratzeko, sarrerak erostea ezinbestekoa da, 6 euroren truke.

Kultur etxea, 20:00etan.



Haur eta gurasoak, beldurrezko ibilbideari ekiteko zain. TXINTXARRI



Giro ederra izan zuten Basotxo plazan, Gau Beltza hasi eta buka. TXINTXARRI



Sorpresa ederra eman zien auzotarrei LOZETen zezensuzkoak. TXINTXARRI

Beldurgarria eta iluna izan da Gau Beltza

Arimen Gauda aurrera eraman dute Zabaletan, euskaratik eta euskaraz. Haurrentzako nahiz helduentzako beldurrezko ibilbideak, akelarrea, pintxo-potea eta LOZET elkartearen zezensuzkoa (azken hori, ustekabea) izan dira Basotxo plazan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Beldurrezko ibilbideari ekiten lehenak haurrak eta euren gurasoak izan ziren. Ilun-ilun zegoen auzoa, pare bat orduz kaletako farola eta bestelakoak itzali zituztelako. Asmatu zuten antolatzaileek, Gau Beltza are beltzagoa bilakatu eta esperientziari misterio eta intriga ukitu bat eman ziolako.

Abiatu eta berehala, parte hartu zutenen izu nagusia txakur kakak ez zapaltzea zen, esan bezala, tutik ez zutelako ikusten bidean zehar. Azkar ahaztu ziren horretaz, Pepenea kale atzealdean aurreneko sustoa hartu zutenean. Ez zen bakarria izan, ustekabea eta pertsonaia izugarri ugari izan baitzituzten zain, noiz eta gutxien espero zuten toki eta momentue-

tan: motozerrak, Rotaflexaren txinpartak (*Rotaflexa garraxika*, Su Ta Gar taldeak abesten duen bezala), listua irenstera behartu zituzten panpina makabroak... Osteratxoa amaitu eta Basotxo plazara iristean lasai hartu zuen arnasa batek baino gehiagok.

Minutu batzuk geroago ibilbide bera urratu zuten aurrekoak baino helduagoak zirenek. Estatus

hori berreste aldera-edo, ezerk ez ziela beldurrik eman esan zuten zenbaitek. Hori bai, arimak hurreratu zitzaizkienean azkar egin zuten lasterka...

Sutondoan, akelarrea

Ibilbideak amaituta indarrak berreskuratzearen alde egin zuten gehienek eta Zabaleta Auzolan elkarteko kideak jo eta fuego aritu ziren jatekoa eta edatekoa prestatu eta tiketak saltzen. Ateratakotik gutxi itzuli behar izan zuten lokalera.

Lokal barruan zeuden Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako

zenbait ikasle, akelarrerako prestatzen. Bitartean, sua piztu zuten kanpoaldean, minutu gutxi barruko dantza girotzeko. Kalakan taldearen *Sagarra jo* piezaren doinupean koreografia ikusgarria plazaratu zuten eta amaitu zutenean txalo artean agurtu zituzten dantzarien inguruan borobila osatu zuten ikus-entzuleek.

Gau Beltza amaituta zegoela zirudienean, izuak eta beldurrak pasata lasaitzeko unea zela ematen zutenean, LOZET elkartearen zezensuzkoa sartu zen Basotxo plazara eta berarengandik ihesean aritu ziren haurrak eta gurasoak.

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



Eman bultzada,
indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka